

# FESTIVAL INTERNACIONAL DE DANZA NAZIOARTEKO DANTZA JAIALDIA

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBAO  
PALACIO DE CONGRESOS Y DE LA MÚSICA  
MUSEO GUGGENHEIM BILBAO

# DANTZALDIA

2009. EDICIÓN X. EDIZIOA



**EVA YERBABUENA - BALLET FLAMENCOCEN - BALLET  
DE LORRAINESA. POLAROISKA - RUEMANIAKLUCIA  
LACARRA E INVITADOS DANS KIAS - SASKIA  
HÖBLING VASCOS DESDE FRANKFURT**

**EUSKERA**

## La FuNdicION

Francesc Macià 1-3 48014 BILBAO Tf.: 944 753 327 Fax: 944 759 115  
<http://www.dantzaldia.org> [info@lafundicion.org](mailto:info@lafundicion.org)

[www.dantzaldia.org](http://www.dantzaldia.org)



2009 - X. edizioa

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

## DANTZALDIA 2009

Daborduko esku biek in zenbatzen ditugu urteak

Bere **hamar urteko urtemuga** honetan jaialdiak aldaketa batzuk iragartzen ditu: beste urtaro batera aldatzeaz gain, edukien gama zabaltzen duen egitarau batekin ospatuko du. Sentsibiltate askotarako eta gustu diferenteetarako jaia izango da:

Eva Yerbabuenak flamenkoaren mundura hurreratuko gaitu, bere bakar-saiorik onenekin; Lucia Lacarrak baletaren historiako duo famatu batzuk aurkeztuko dizkigu, mundu osoan ezagunak diren konpainietako izarrek dantzatuta; Sra. Polaroiskako kideekin bidaiatuko dugu, literalki, eremu ezohiko batetik; Frantziako Ballet de Lorraine – Zentro Koreografiko Nazionalak William Forsythe, Hervé Robbe edota Stephen Petronio ezagunen koreografiak dantzatuko ditu; Saskia Hölbling-ek izoztu egingo gaitu bere soinu eta bideo-sorkuntza dispositiboarekin, eta Frankfurten bizi eta dantzatzen duten Euskal Herriko dantzari batzuekin berriz ere egoteko aukera izango dugu, gau-emanaldi berezi batean.

Ikuskizunek, bideo-saioek, *master class*-ek, artistekin eta euren sormen-prozesuekin izandako solasaldiek beteko dute Dantzaldia. Eta jaialdian *nazioartekotasuna, bertoko sorkuntzak bultzatzea, gogoetarako eta ikerketarako gune izatea, komunikazioa, lotura profesionala, erakundeen arteko kolaboraziorako zubia, sortzaileen ikusgarritasuna...* bezalako hitzek funtsezko kontzeptuak izaten jarraitzen dute.

## **...“ AÑOS EN LA VANGUARDIA DE LA DANZA”**

*La danza sigue dando mucho que hablar porque da mucho que pensar: dónde están los límites. No hay límites. El cuerpo expresado, el pensamiento en movimiento, la investigación formal, la narrativa a través del cuerpo, la realidad del entorno, la investigación técnica, los otros lenguajes: visuales, sonoros, la relación cuerpo-música, cuerpo-sonidos, la relación con el público, la danza y el cuerpo social, la puesta en escena, representación o presencia, improvisación o pautas cerradas... Un abanico de tendencias y estilos que es tan amplio como el de las preguntas que se plantean los creadores y las soluciones que dan a sus planteamientos.*

### **DANTZALDIA 2009**

#### **Hasta ahora realizado en otoño.**

*Nos hemos planteado salir de la enorme oferta de esta estación y celebrarlo en primavera, a partir de esta edición 2009.*

*Como décima edición que es, la planteamos como una celebración de danza que parte de un cambio conceptual que modificará los contenidos en adelante: se abre la gama de estilos para diseñar en posteriores ediciones un festival donde tendrán cabida todos los tipos de danza: contemporánea, clásica, tradicional, hip hop... para todas las sensibilidades artísticas y todas las edades.*

*La danza y sus procesos, en el contexto de la creación contemporánea, ofrecen un panorama muy amplio de propuestas vivas, inquietantes, sorprendentes... del que DANTZALDIA, como único FESTIVAL específico de danza en Bizkaia y en la CAV, se quiere hacer eco.*

*Es por ello por lo que el Festival va ampliando sus propuestas. Para crear un espacio de acciones que supere la exclusiva presentación, que contacte con el público en diferentes facetas, que aporte más información técnica y de procesos para la profesión local, que suponga un lugar para el pensamiento/reflexión sobre lo contemporáneo, que sirva como plataforma de oportunidad para nuevas creaciones,*

#### **Para ello se presentan:**

- **espectáculos** en espacios diferenciados: Euskalduna Jauregia, como centro de operaciones y otros como el Museo Guggenheim Bilbao o diversos lugares que pudieran aportar diferentes formatos de acogida para las piezas.
- **sesiones de vídeo** que nos conectan con otros creadores y sus puntos de vista de creación de la imagen, y de sentido espacial.
- **Master clases** que posibilitan la **formación permanente** y fomentan la comunicación entre equipos artísticos: los profesionales locales y las compañías invitadas al festival.
- **Conversaciones con los artistas**, lo que nos permite acercar a los profesionales y al público a sus **procesos creativos**.

***"Internacionalidad, espacios para la reflexión e investigación, comunicación, puente para la colaboración institucional, fomento de la creación, visibilidad de los creadores... continuarían siendo, de todas formas, las palabras claves de esta X edición."***

## **DANTZALDIA 2009 / OBJETIVOS**

**-Presentar compañías internacionales** que, con una circulación habitual en los teatros del mundo, todavía no han tenido la oportunidad de ser vistas por el público de Bizkaia.

**-Actualizar la cartelera de danza con Compañías ya "clásicas" en la historia de la danza de creación** que no formaban, todavía, parte de un proyecto sobre la información a recibir por el público.

- **Continuar y reforzar la línea de colaboraciones internacionales** de cara a proyectar a nuestros **Creadores** hacia el exterior.

**-Plantear el FESTIVAL como lugar atractivo para Estrenos totales**, que después tienen repercusión no sólo en la Comunidad, sino en el Estado.

**-Ampliar los registros de la programación de Artes Escénicas** y más especialmente con danza, en este programa bien **específico en cuanto a línea**, aunque generalista en cuanto a posibilidades de estilo.

- **Equiparar el panorama general de la programación de danza** en el sentido de darle una equivalencia, en cuanto a presencia e importancia, **con respecto a otros Festivales y Teatros Públicos**.

**-Convocar a los medios**, que han demostrado un gran interés, como se puede comprobar por el dossier de prensa anexo.

**-Conectar con los nuevos públicos** por la vía de la intersección "Espacios Urbanos- Nuevas tendencias de la Danza", dadas las características del edificio, y del material presentado y su interés.

**-Ampliar la gama de usuarios de la danza** en la habitualidad de la oferta cultural, utilizando estrategias de comunicación y equipos humanos.

- **Buscar la implicación de otros organismos** en la financiación de proyectos culturales.

Da cuenta ello la implicación de **los tres niveles administrativos** de la Comunidad Autónoma Vasca, a los que se suma también el apoyo del **Ministerio de Cultura** en sus dos Direcciones.

PATROCINA BABESLEA



SUBVENCIONA DIRULAGUNTZAILEAK



COLABORA KOLABORATZAILEAK





2009 - X. edizioa  
EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

## EGITARAUA

APIRILAK 19 / 20:00etan  
A1 aretoa / Euskalduna jauregia

EVA YERBABUENA – BALLET FLAMENCO (Sevilla)  
**"Yerbabuena"**

MAIATZAK 3 / 20:00etan  
A1 aretoa / Euskalduna jauregia

LORRAINEKO BALETA - ZCN(Nancy)  
**"Steptext" + "Broken man" + "les ombres d'une guerre sans nom"**

MAIATZAK 8, 9, 10 / hainbat saiotan  
Tokia: Aurreko zitan konkretatzeko

Sra. POLAROISKA - RUEMANIAK (Bilbo)  
**"Apuntes sobre animales, encuentros y autopistas"**

MAIATZAK 19 / 20:00etan  
Auditorioa / Euskalduna jauregia

LUCIA LACARRA ETA GONBIDATUAK (Munich)  
**"Lucía Lacarrak aurkezten du..."**

MAIATZAK 27 / 20:00etan  
Entzungela / Guggenheim Bilbao museoa

DANS. KIAS - SASKIA HÖLBLING (Viena)  
**"cat freeze 2"**

MAIATZAK 31 / 20:00etan  
A3 aretoa / Euskalduna jauregia

EUSKAL HERRITARRAK FRANKFURTETIK:  
Jone San Martin + Amancio Gonzalez + Inma Rubio (Frankfurt)  
**"Derivado" + "Sin-king in me" +  
"Vision divided" + "The vile parody of a dress"**

BESTE JARDUERA BATZUK

MASTER CLASS IREKIAK

BIDEO-DANTZA

SOLASALDIAK



2009 - X. edizioa

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**A1 aretoa – Euskalduna jauregia**  
**Apirilak 19 (igandea) - 20:00etan**

**EVA YERBABUENA - BALLET FLAMENCO / Sevilla**  
**“YERBABUENA”**

*DE LA CAVA (Seguirilla)*  
*ENCUENTRO (Bulería)*  
*ESPUMAS DEL RECUERDO (Mirabras)*  
*INTRUMENTAL (Gitarra)*  
*QUIERO Y NO QUIERO (Tientos Tangos)*  
*CADENCIA (Solea / Bulería)*

Hiru *cantaore*-rengan gauzatzen den musika jatorra, sendoa, sentikorra da, eta hiruren ahotsek *bailaora*-ren baitan kolpatzen dute eta bere baitatik oso sentimendu desberdinak ateratzen laguntzen diote. *Cante*-a, Dantza, Gitarra, era puruan eta kontzesiorik gabe agertzen dira.

«Argia hiltzen da, soinua galdu, formek alde egiten dute eta bakarrik geratzen naiz, konortea galduta ilunantz artean, nire zentroetatik flamenkoaren iragankortasunaz guztiz jakitun naizela». *Eva Yerbabuena*

Dantza, koreografia eta jatorrizko ideia: **Eva Yerbabuena**  
Gitarrak: **Paco Jarana, Manuel de la Luz**  
*Cantaore*-ak: **Jose Valencia, Pepe de Pura, Jeromo Segura**  
Perkusioa: **Manuel Jose Muñoz “Pájaro”**  
Musika-zuzendaritza: **Paco Jarana**  
Argi-diseinua: **Florencio Ortiz**  
Soinu-diseinua: **Manu Meñaca**  
Jantzien diseinua eta jostea: **Manuel y Gabriel**  
Soinua: **Manu Meñaca, Angel Olalla, Kike Seco**  
Argiztapena: **Florencio Ortiz**  
Errejidorea / makineria: **Daniel Estrada**  
Joskintza: **Manuel y Gabriel**  
Ekoizpena eta banaketa: **Eva Hierbabuena S. L.: Marta Román, Cristóbal Ortega**  
Prentsa eta komunikazioa: **Relabel Comunicación, Anabel Mateos**

## EVA YERBABUENA

Frankfurten jaio zen (Alemania) 1970ean. Gurasoek Granadara eraman zuten hamabost egun geroago. Nolabaiteko heziketa autodidakta duen dantzaria da, eta gazte-gaztea zela hasi zen bere koreografo alderdia garatzen. Interes horrek eraman zuen **beraren konpainia** sortzera 1998an. *Eva* (1998), *5 Mujeres* (2000), *La Voz del Silencio* (2002), *A Cuatro Voces* (2004), *El Huso de la Memoria* (2006) eta *Santo y Señá* (2007) dira Eva Yerbabuenak bere konpainiarentzat sortu dituen sei ikuskizunak.

Bere hastapenak maisu handi batzuek markatu zituzten, eta haien artean Enrique "El Canastero", Angustillas "La Mona", Mariquilla eta Mario Maya daude. Dantza ikasketak beste diziplina batzuekin tartekatu zituen, hala nola arte dramatikoa eta koreografia. Azken hori La Habanan (Kuba) ikasi zuen Johannes Garciarengandik. 1985ean bere ibilbide profesionalari ekin zion Rafael Aguilarren konpainian, *Dique de la Alhambra* lanarekin. Urte batzuk geroago, Paco Moyanoren konpainian sartu zen, *Ausencia*, *A tomar café*, eta *De Leyenda* interpretatuz. 1990etik aurrera noizean behin kolaboratzen du Javier Latorre, Manolete, El Güito, eta Merche Esmeraldarekin *Mujeres*-en

**Pina Bausch** eta **Carolyn Carlson** bezalako artistek bere lana miretsi eta bere kolaborazioak eskatzen dituzte. Pina Bauschen kasuan, Evak 2001etik parte hartzen du alemaniar koreografoak Wuppertalen antolatzen dituen jaialdietan –hiri hartan dago Bauschen konpainia– **Sylvie Guillem**, **Ana Laguna**, **Marie Claude Pietragalla** edota **Mikhail Baryshnikov** bezalako figuren alboan. Carolyn Carlsonek Evari deitu zion koreografia sortu zezan Veneziako Biurtekoan, 1999an.

**Mike Figgis** britainiar zuzendariaren *Flamenco Women* (1997) izan zen zinearekin eduki zuen lehendabiziko kontaktua. Dokumental hartan izandako kolaborazioak ez zuen epel utzi zuzendaria, eta Figgisek ostera ere deitu zion *Hotel* filmerako (2001). Hura fikziozko luzemetraia izan zen, eta Evak besteak beste John Malkovichekin konpartitu zituen errodatzean izandako bizipenak.

Bere konpainia sortu zuenetik, Evak hainbat bira egin ditu Espainiako eta munduko antzokirik onenetatik; Zarzuela antzokitik –haren 150 urtemuga *El Huso de la Memoria*-rekin inauguratu zen– Sydneyko Operaraino. Izan ere, musikaren tenplu hartan *Eva* izan zen lehendabiziko dantza lan flamenkoa. Tartean Eva Yerbabuena Ballet Flamenco konpainia Sadler's Wells, Royal Albert Hall, City Center, Dusseldorfeko Opera, Sao Pauloko Udal Antzokitik... igaro da, bere erreperitorio osoari bizia emanez.

Esandako lanen nazio eta nazioarteko proiektzioak eta Yerbabuena *bailaora* eta koreografoaren lanak sari eta domina garrantzitsu asko jaso dituzte. Haien artean honako hauek dira aipagarrienak: **Flamenco Hoy saria Bailaora** onenaren sailean, 1999, 2000 eta 2001. urteetan; **Dantza Sari Nazionala** 2001ean, **Giraldillo sariak** Sevillako XII. Flamenko Biurtekoan, Bailaora eta Interprete onenaren sailetan, 2002an; XIV. Flamenko Biurtekoan dantza onenaren sailean, 2006an; **Time Out saria** Emakume Dantzari Onenaren sailean, 2003an; **Arte Eszenikoen Max sariak** Emakume Dantzari Onenaren sailean eta Dantza Ikuskizun Onenaren sailean –*Eva: A cal y canto*– 2005ean; **Arte Eszenikoen Max sariak** Emakume Dantzari Onenaren sailean, 2006an, *A Cuatro Voces*-engatik. **Andaluziako Domina**, 2007ko otsailean emana.

2008an Eva Yerbabuena Ballet Flamenco konpainia AEBetako hiri nagusietatik ibili da biran eta parte hartu du New Yorkeko Jaialdi Flamenkoko programazioan. Beste bira bat egin du Brasil eta Txiletik, Santiago de Chile, Sao Paulo, Rio de Janeiro eta Brasiliako antzoki nagusietatik, besteak beste. Pasa den irailean Pedro Almodóvarrek Eva gonbidatu zuen parte hartu zezan Madrilgo Udalak Mantxako zuzendariari egin zion omenaldian.



## PACO JARANA

Sevillan jaio zen 1966an. Gitarra eta flamenkoarekin izandako lehen kontaktuak Luis Franco bere aitaren eskutik eduki zituen, Pacok zortzi urte zituela. Gitarra flamenkoari buruz ikasi zuena Sevillako Musika Goi-Kontserbatorioan egindako ikasketekin osatu zuen, bertan ezagutu baitzuen kontzerturako gitarra. Konposizioarekiko duen interesa nabarmena da eta hori berori frogatzen dute dantza flamenkoaren arloko figura handiek egiten dizkioten enkargu ugariak (Mario Maya, Farruco, Matilde Coral, Javier Latorre...).

Era berean, 1998tik Eva Yerbabuena Ballet Flamenco konpainiaren ikuskizunetarako musika konpositorea da (*Eva, 5 Mujeres 5, La Voz del Silencio, A Cuatro Voces* eta *El Huso de la Memoria*), eta haiengatik profesionalen errekonozimendua jaso du honako sari hauekin: Giraldirlo 2004 jatorrizko musika onenarengatik *A Cuatro Voces*-en. Sevillako Biurtekoak interpretazio onenari emandako Giraldirlo saria eman zion 2006an. 2008an bere lehen bakarkako lana *-En el bar Iberia-* aurkeztu zuen Segundo Falconekin batera, Sevillako Flamenkoaren Biurtekoan.



2009 - X. edizioa  
EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**A1 aretoa – Euskalduna jauregia**  
**Maiatzak 3 (igandea) - 20:00etan**

**BALLET DE LORRAINE /Zentro Koreografiko Nazionala - Nancy**

Zuzendari artistikoa: Didier Deschamps

**“STEPTEXT”**  
**“BROKENMAN”**  
**“LES OMBRES D’UNE GUERRE SANS NOM”**

**“STEPTEXT” - William Forsythe**

20 min.

1985ean sortua Reggio Emiliako Aterballetto-rentzat (Italia)

Koreografia, eszenografia, argiztapena, jantziak: **William Forsythe**

Musika: **Johann Sebastian Bach, biolinerako 4. sonatako txakona. Bakar-saioa re minorrean**

Dantzariak: **Grégory Beaumont, Mikaël Conte, Fabio Dolce, Nina Khokham**

«Antzerki-erritualaren mekanikatik ihesi, *Steptext* tradizionalki antzezpenaren egitura erabaki duten interpretazioaren mekanismoak –bai funtsezkoak bai alboetakoak– apurtzen jolasten da. Hortik abiatuta, *suspense* musikal, eszenografiko eta koreografiko dislokatu batzuk sortzen dira, emakume bat eta hiru gizonentzako narrazio giro trinkoa sortuz».

William Forsythe

«*StepText – Testu jauzia–*: hitza jauzian datza. Lehendabizi, eskuen diskurtso isil, temati eta misteriotsuak eta semaforo erako besoak daude. Gero, *Artifact*-etik hartutako *pas à deux* sublimea, maisulanen artean maisulana dena. Luzapen infinituak, 360º-ko *ronds de jambe*-ak, behegainaren arrasean eta dantza-kidearen inguruan egindako *grand jeté*-ak.

Lau interprete tenkatu, Bachen re minorreko sonatako biolinaren hariak bezala. Musikaren edertasun soil eta lazgarria Forsythe-ren dantza futuristaren bila doa. Musikariak eta koreografoak burla egiten diete etiketei: biak ala biak dira klasikoak eta modernoak aldi berean».

Sylvie de Nussac

**William Forsythe**

Merce Cunningham dantza garaikidearen aita dugu, baina William Forsythe *enfant terrible* eta haur prodijioa da. Forsythe-ren obraren berezitasuna da dantzaren historiako haustura guztiak integratzen dituela, are urrunago heltzeko. Koreografoak baleta deskonposatu eta dantza erradikal, elegante eta geometria bikainekoa sorrarazi du, publiko klasikoak eta garaikideak haren inguruan elkartuz.

Forsythe New Yorken jaio zen 1949an, eta *rock and roll*-aren garaian hazi zen, komedia musikalak oso gustukoak zituela. Jacksonvilleko unibertsitatean ikasi zuen dantza. Beranduago, Joffrey Ballet-eko eskolan jarraitu zuen ikasten, eta 1971n bertan integratu zen. Hasiera batean American Ballet-eko dantzari ohi batengandik ikasitako Balanchinereen estilo konplexu eta abstraktuak liluratuta utzi zuen. Hogei pieza inguru zeukala Frankfurteko baletaren zuzendaritza hartu zuen, 1984an. Konpainia egoiliarra da Frankfurteko Operan.

Bere estiloa sendo markatu zuen *Artifact* piezarekin, antzerki-kode guztiak apurtuz eta dantza bizkorgarria agerraraziz. Esandako estiloa *Steptext*-ekin jarraitu zuen (1985). Era berean, Forsythek konpainia prestigiotsu askoren enkarguak jasotzen ditu: Pariseko Operako Baleta, New York City Ballet, Kanadako Balet Nazionala...

Koreografoaren ospeak zerikusia dauka baletaren lengoia berrasmatzeko duen gaitasunarekin, haren mugak estilo neoklasikotik askoz harago eramanez. Ez du baleta betikotzea bilatzen, baizik eta haren hiztegia zuritzea, egunean jartzeko mekanika guztiz abstraktu bat, zeina egikeraren bizkortasunaren inguruan eta mugimendu nahiz ibilbideen hausturaren inguruan artikulatzen baita, beranduago era aleatorioan berreraikia izateko.

Frédérique Doyon (Laburpenak)

### **“BROKENMAN” - Stephen Petronio**

6 min.

2002ko urriaren 15ean estreinatua, New Yorkeko Joyce Theater-en

Koreografia: **Stephen Petronio**

Musika: **Blixia Bargeld**

Dantzaria: **Dmitri Domojirov**

Jantziak: **Tara Subkoff/Imitation of Christ**

Argiztapena: **Ken Tabachnick**

Entsegu-maisua: **Jarmo Penttila**

«*Tour de force* ikaragarria da Stephen Petroniorentzat. Baina begia erakartzen eta bihotza hunkitzen duena gelditasun ia erabatekotik mugimendu hautsietara, dotoreziaz luzatuetara, sostengatuetara, konbulsiiboetara egindako igarotze bat-batekoak dira.

Batzutan irmoa eta arteza dela eta beste batzuetan etsia dela, BrokenMan piezak ekarritako tristezia inguratzailea eta bizi-zalantza zuzenean doaz irailaren 11k sortu zituen gogorapenen eta beldurren muinera».

Jennifer Dunning - The New York Times

### **Stephen Petronio**

Stephen Petronio (zuzendari artistikoa eta koreografoa) Newark-en jaio zen (New Jersey). Massachusettseko Hampshire College in Amherst-en diplomatu zen eta bertan deskubritu zuen dantza, 1974an. Petroniok bere hastapenetatik jaso zuen Steve Paxton-en lanaren eragin sakona, eta Trisha Brown konpainiako lehen dantzari maskulino izateaz gain, bertan dantzatu zuen 1979tik 1986ra arte. 1984an fundatu zuen bere izena daraman konpainia –Stephen Petronio Company– eta harrez geroztik nazioarteko onarpena jaso du bere abangoardiako koreografiengatik. Konpainiak ohikotasunez egiten ditu birak AEB, Kanada, Mexiko, Europa, Hegoamerika eta Errusiatik.

Hona hemen Stephen Petroniok bere karreraren zehar izan dituen kolaboratzailearik aipagarrienak: Cindy Sherman, Anish Kapoor, Donald Baechler, Stephen Hannock, Justin Terzi, Charles Atlas, Tal Yarden eta Trisha Fox artista plastikoak; Laurie Anderson, Lou Reed, Michael Nyman, James Lavelle, Wire, Diamanda Galás, Sheila Chandra, Lenny Pickett eta David Linton konpositoreak; Tara Subkoff/Imitation of Christ, Leigh Bowery, Manolo, Paul Compitus eta Tanya Sarne/Ghost sortzaileak; eta baita ere Ken Tabachnick argi diseinatzailea, urte luzez Petroniorekin kolaboratu duena.

**“LES OMBRES D'UNE GUERRE SANS NOM” - Hervé Robbe**

2009ko otsailean sortua

Koreografia: **Hervé Robbe**

Musika: **Andréa Cera**

Dantzariak: **Agnés Boulanger, Mickaël Conte, Justin Cumine, Valérie Ly-Cuong, Dmitri Domojirov, Laure Lescoffy**

Jantziak: **Hervé Robbe**

Jantzien egitea: **l'Atelier Costumes du CCN - Ballet de Lorraine**

Entsegu-maisua: **Jarmo Pentilla**

*Les ombres d'une guerre sans nom...*

*Izenik gabeko gerra baten itzalak*

*Ez den zerbait erakutsiko dizut nik*

*Ez da zure itzala goizean zure atzetik ibiltzen,*

*Ez da zure itzala arratsaldean zure bidera irteten,*

*Zeure izua erakutsiko dizut, hauts eskukada betean.*

T. S. Elliot

«Batzutan, basakeriaren gelaurrea erretorika eruditua praktikatzen eta agortzen den gune bat da.

Leku horietan iragarritako tragedia baten estigmak daramatza heroia gorpuzak.

Manierismoraino marratzen eta sinatzen dituzte errezitamendu obsesiboak, eta ezinezko dialektika baten espiral infernutarrean galtzen dira.

Beren gatazkak ez du izenik eta beren etsaiek ez dute aurpeirik.

Ate zarratu, enigmatiko, noraezko honetan gerra-abetes bat baten itzalek planeatzen dute.

Augurio txarreko hegaztiak axolagabetasun tematiaz bizi dira mundu horretan.

Infinituraino jolasten dira erritual fatidiko bateko zeremonia egiten».

Hervé Robbe

Gustukoa du kontzeptua, baina atseginzalea da gorpuzarekin duen harremanean. Hervé Robbe koreografoak dantza ziztatzailea –ekintza dinamiko eta jarraituez hornitua eta ezbehar kontraesankorrez errimatua– errebendikatzen du.

**Hervé Robbe**

Lillen jaio zen 1961ean.

Arkitektura ikasketak urte batzuetan egin ostean, Hervé Robbek dantza aukeratu zuen. Bere oinarrizko heziketa Maurice Béjartek Bruselan duen Mudra eskolan gertatu zen.

Bere interprete karrera errepertorio neoklasiko dantzatzen hasi zen eta beranduago zenbait konpainia garaikidekin kolaboratu du.

1987an bere konpainia –*Marietta secret*– fundatu zuen. Bere proiektuak obra polisemikoak eta forma askotarikoak dira: aurrez aurreko ikuskizunak, ikuskizun mugigarriak eta instalazioak, alegia. Ikusleek betetzen duten lekua, beren presentzia eta begiradak erabakigarriak dira, eta espazioa horregatik jartzen da etengabe auzitan.

Havre Haute-Normandiekko Zentro Koreografiko Nazionalera heldu izanak bere ikerketaren posibilitateak indartu zituen. 1999an Polaroid izeneko solo autobiografikoa sortu zuen. 2000n etxearen gaia esploratu zuen *Permis de construire - Avis de démolition* izeneko piezarekin. Diptiko erako lan hark instalazio bat eta ikuskizun bat zeuzkan.

Geroago, 2002an, lorategiaren gaiari ekin zion, *Des horizons perdus* lanarekin, pieza hartako unibertsoa gorputz birtualetarako ontziak ziren pantailekin eraikiz. 2004an talde-lanera itzuli zen *Mutating score*-rekin. Orduko hartan eremu eszenikoa interpreteek eta ikusleek elkarrekin betetzen zuten. Pieza-instalazio hark ikuskizunean denbora errealean txertatutako teknologia berriak erabiltzen zituen.

2006an *So long as baby... love and songs will be* instalazioa sortu zuen.

2007ko *Là, on y danse* sorkuntzan Hervé Robbek distantzia hartu zuen eszenatokiarekiko. 2008an *Double Je - Nous comme entre deux* erakusketak –bost instalaziorekin– gorputz birtualaren erronka koreografikoak berrartzeko aukera eman zion.

Bere ekoizpenekin batera, Lyongo Operak, Gulbenkian Baletak, Pariseko Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse delakoak (CNSMDP) eta Hong Kongeko Academy of Performing Arts-ek egindako enkarguak ere onartu ditu.



2009 - X. edizioa

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**Tokia: Aurreko zitan konkretatzeko**

**Maiatzak 8 (ostirala), 9 (larunbata) eta 10 (igandea)**

**Ordua: IKUSLE BAKOITZAREKIN ZEHAZTUKO DA**

**SRA. POLAROISKA EN SILLÓN DE TALLER  
RUEMANIAK-ekin elkarlanean / Bilbo  
APUNTES SOBRE ANIMALES, ENCUENTROS y AUTOPISTAS**

Proiektu eszeniko berri honen sorkuntza Izaskun Santamaria, Alaitz Arenzana, Jorge Lastra eta Maria Ibarretxeren esku dago, eta haren bidez kolektiboak antzespenerako beste gune eta lengoia batzuk bilatzen jarraitzen du, beraietan garatzeko beren kezka eta ideiak, bai politikoak bai estetikoak, zine, *performance*, koreografia eta dantzaren bitartez. Pieza/bizipen honetan konpainiak planteatutako bidaia batean murgilduko da ikuslea, bidaia-kontzeptua alderdi askotatik ulertuta.

*Galdera horiek zure etxean eta nire etxean egin dizkiegu gure buruei, zu eta ni ez garelako gogoratzen.*

**DISPOSITIBOA:**

Egunean bost saio egingo dira, ordutik ordura, hiru ikuslerentzat. Aurretiaz, ikusleak deituak izango dira, ordu jakin batean eta leku ezohiko eta ezezagun batean.

Emanaldia Interneten, egitarauetan, etab... iragarriko da aurkezpen datekin batera, eta helbide elektronikoa ere emango da, ikusleek bertaratzeko asmorik izatekotan e-mail bidez erantzun dezaten beren izen-abizenak emanez, balizko ikusleen zerrenda osatzeko.

Gero, antolatzaileek e-mail bidezko erantzuna bidaliko diete ikusleei, haietariko bakoitzari dagozkion emanaldiaren data, ordua eta lekua esanez. Garrantzi handikoa da leku hutsik ez geratzea, eta horrexegatik behar da ikusle bakoitzak bere bertaratzeari baiezta ematea.

Sorkuntza: **Alaitz Arenzana, Maria Ibarretxe, Jorge Lastra, Izaskun Santamaria**  
Interpreteak: **Izaskun Santamaria, Jorge Lastra, Maria Ibarretxe, Natxo Montero, Arrate Etxebarria, Amaia Pascual**

Koreografia: **Izaskun Santamaria, Jorge Lastra, Maria Ibarretxe**

Bideoaren errealizazioa: **Alaitz Arenzana**

Argi-diseinua: **Borja Ruiz Grijalba**

Zuzendaritza: **Maria Ibarretxe**

Ekoizpena: **Sra. Polaroiska en Sillón de Taller, Ruemaniak-ekin elkarlanean**

Diru-laguntzak: **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Bilboarte Fundazioaren laguntzarekin**

### **JORGE LASTRA (Bilbo, 1976)**

Psikologia eta Arte Eszenikoetan lizentziatua.

Dantza garaikidean hainbat koreografo/dantzarirekin hezi da, hala nola Ted Stoffer, Chrysa Parkinson, Win Vandekeybus, Steve Paxton, Jordi Cortés, Mal pelo konpainia, Katie Duck, Germán & Jorge Jauregui, Dennis O'Connor, Claire O'Neill, Bilbon, Berlinen eta Bruselan.

*Naranjas del tiempo* (2004) –Natxo Monterorekin batera– eta *Caidos del Cielo* (2006-07) pieza eszenikoak sortu ditu.

Azken urteotan hainbat formatutako dantza garaikideko piezatan lan egin du ondoko sortzaile edota konpainiekin: Beatriz Fernández (*Restos de Miss Series* - 2008), Blanca Arrieta - Ciento cincuenta cuerdas konpainia (*Silvery Snot* - 2006, *Memoria* - 2006-07, *Rest* - 2007), La intrusa - Damián Muñoz & Virginia García (*El guateque* 2004, *Staff* - 2007), Asier Zabaleta - Ertza (*Babia* - 2005-06).

Zubiak kolektiboaren kolaborazioarekin, hiri-eskuartzeko eta ekintza-praktika artistikoko zenbait pieza sortu ditu.

Gaur egun *En busca de Patt / Patt ya no vive aquí* izeneko ikus-entzunezko proiektua garatzen ari da.

### **IZASKUN SANTAMARIA (Portugalete, 1972)**

1992an Madrilgo Real Escuela Superior de Arte Dramático y Danza delakoaren titulu ofiziala eskuratu zuen.

Isidro Zapaterorekin batera *Silencio* sortu zuen eta gero *A tientas* –bere bakarkako lehen pieza–, Euskal Koreografoen Erakusketaren V. eta VII. edizioetarako.

Dantzari eta interprete jardun du ondoko konpainia hauetan: Damián Muñoz, Matxalen Bilbao, Steak Tartar eta Blanca Arrieta.

2004tik aurrera dantzaria izan da Organik konpainian *ES3IN*, *+ES3* eta *Lilas* ikuskizunekin.

2008. urtean zuzendari laguntzaile jardun zuen *Malditas* piezan (Organik) eta Miren Gaztañagarekin batera zuzendu zuen Gabriel Ocinaeren *El lobo y el Alma*, BAD (Bilbo Antzerkia Dantza) jaialdian estreinatu zena.

Era berean, dantza garaikide eskolak ematen ditu Muelle 3en (Bilbo).

### **MARIA IBARRETXE DEL VAL (Bilbo, 1977)**

Arte Dramatikoan diplomatua (BAI & Basauriko Antzerki Eskola).

*Performance* eta Koreografia ikasketak egin zituen Bartzelonan, Berlinen eta Sevillan. Eszena-zuzendaritza EITVn (San Antonio de los baños, Kuba).

Koen De Preter-ekin batera koreografoa eta interpretea izan zen: *We Dance To Forget*, Fabuleus, Stuk Arts Centre, Leuven, Belgium (Julidans 07, Aerowaves 08...).

La Pez danza-teatro-ko kide da.

Jorge Lastrarekin batera *Site Specific* hauek sortu ditu: *Hule* eta *Bilbao es una mala copia*, Periferiak ekimenerako (Zubiak) 05/07.

Interprete jardun du Asier Zabaleta, Eva Vidal, Martina Von Hold eta Shizuka Hariu-rekin.

Patricia Fuentesekin batera *Txatxorra` s Cube* sortu zuen, eta *Bloody M keeps the gun in the forest* izeneko pieza *La repolitización del espacio sexual en las prácticas artísticas contemporáneas* mintegirako.

Koreografo jardun du Nacho Vigalondoren *7:35 de la mañana* laburmetraian. Era berean, Alaitz Arenzanarekin lan egiten du Sra. Polaroiska en Sillón de Taller izeneko kolektiboan. (Ikus Sra. Polaroiska).

## **ALAITZ ARENZANA (1976)**

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua EHUen.

Pascal Aubier-en gidaritzapean tailer bat egin zuen EITVn (San Antonio de los baños, Kuba). Zine eta bideo esperimentalezko sorkuntza K2000 ekoizpen etxearekin egindako telebista-programa, erreportaje eta dokumentalekin aldizkatu du. Bizkaiko Foru Aldundiaren *Ikus-arteak eta Sintesi bidezko irudia* beka lortu zuen eta *Un día de descanso o la mancha* egin zuen. CALYPSO. Ikasketa artistiko prozesuak. Rekalde aretoa.

Era berean, Maria Ibarretxerekin lan egiten du Sra. Polaroiska en Sillón de Taller izeneko kolektiboan. (Ikus Sra. Polaroiska).

## **NATXO MONTERO MATIA (Bilbo, 1972)**

1995ean ekin zion dantza garaikidea ikasteari Matxalen Bilbao, Cristina Quijera, Idoia Zabaleta, Olaf Keler eta Didier Sihol-ekin.

Bere heziketak Bruselan, Bartzelonan eta Frantzia jarraitu zuen (David Zambrano, Ted Stoffer, Wim Vandekeybus, German & Jorge Jauregi, Alexis Eupierre, Lipi Hernández, Iñaki Azpillaga, Roxanne Huildman, Martin Kilvadi eta Rasmus Ölme-rekin, besteak beste).

Interprete jardun du ondoko konpainietan: Organik, Steak Tartar, Marcelo Ordóñez's Ballet, Ex Nihilo, Sofie Saller eta Felix Ruckert Company.

Jorge Lastrarekin batera *Naranjas del tiempo* sortu eta dantzatu zuen. Pieza hura hautatua izan zen Euskadiko VIII. Sorkuntza Koreografikoaren Erakusketan.

Rialto Fabrik Nomade konpainiako kide da: *Islavat* (Transeurope europar proiektua - 2004-07), *Desordre* (frantziar-poloniar proiektua) eta *Un Peuple de Promeneurs* (Finlandia).

2008an dantzaria izan zen Roberto Olivane (Centro Coreográfico Galego) zuzendutako *El kiosko de las almas perdidas* izeneko piezan eta *Cuadra-T* izeneko sortu eta interpretatu zuen, Festival Empape (A Coruña). Finalista geratu zen Madrilgo Lehiaketa Koreografikoan, 2008an.

Era berean, dantza garaikide eta euskal dantza tradizionaleko irakaslea da.

**SRA. POLAROISKA EN SILLÓN DE TALLER** proiektu artistikoen garapenerako elkarte bat da eta batez ere zine esperimental, bideo-dantza eta *performance*-aren artean jarduten du.

2008. urtean egonaldi artistikorako beka lortu zuten Bilbao Arte fundazioan, eta han *Apuntes sobre Animales Encuentros y Autopistas* izeneko pieza koreografikoa garatzeaz gain, *Sleeping Over Plastic* ikus-entzunezko pieza ere egin dute. AIR beka ere eman diete Varsoviako CSW zentroan (Ujazdowski) eta han 35 mm-ko *Exhibición 19* egin zuten.

Lehen saria eskuratu zuten *Dios es una chavala manca II* argazki-segidarengatik (Pripublikarrak & Nontzeberrik antolatua).

Josetxo Cerdan eta Antonio Weinrichter-ek antolatutako *D-generaciones* zikloan parte hartu dute (Cervantes Institutua - Praga, Dublin, Okzitaniako Tolosa, Manchester, Milan, Stockholm. *Cámara y Cuerpo* izeneko tailerra eman dute Cuencako Arte Ederretako fakultatean.

2003an INJUVE lehen ikus-entzunezkoen saria lortu zuten, *Pero tú...¿eres tú? No, yo soy su...* lanarengatik. Beren obra hainbat jaialdi eta erakusketatan ikusi da: Indielisboa 07, Festival des Cinémas Différents Paris 07, Incógnitas-Cartografías del Arte Contemporáneo en Euskadi (Guggenheim Bilbao 07), VAD Girona 07, Videofronteras 07, Taste Festival, Leuven 07, ITS/Amsterdam/Bruselas/ Pend fringe, Edimburg 1, 2, 3... Abangoardiak (Rekalde aretoa).





2009 - X. edizioa  
EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**Auditorioa – Euskalduna jauregia**  
**Maiatzak 19 (asteartea) - 20:00etan**

**LUCIA LACARRA eta GONBIDATUAK / Munich**

**“LUCIA LACARRAREN ESKUTIK”**

Egitarau honekin Lucia Lacarrak errepertorio klasikoko pieza sorta zabal-zabala ekarriko du jaialdira. Emanaldian zehar paseo betea egingo dugu baletaren historiatik, eta interprete talde bikaina dago gonbidatuta ibilbidean parte hartzera. Haiek guztiak ditu adiskide eta lagun. Izan ere, Lacarraren konpainia Municheko Operakoa da eta gonbidatu guztiak...

Pariseko Garnier Opera,  
Berlingo Opera,  
Kubako Balet Nazionala,  
English Nacional Baleta  
eta Municheko Opera  
bezalako konpainietako izarrak dira. Haiekin guztiekin ofizioa eta dantzarako plazerra konpartitzen ditu.

***FESTIVAL DE FLORES DE GENZANO***

Coreografía: Bournonville  
Música: Eduard Helsted  
IANA SALENKO y MARIAN WALTER  
Berlingo Operako lehen dantzariak

***AGUAS PRIMAVERALES***

Coreografía: Asaf Messerer  
Música: Rachmaninov  
ROMEL FRÓMETA y EVA SUAREZ  
Kubako Balet Nazionaleko lehen dantzaria eta dantzari solista

***APOLO***

Coreografía: Balanchine  
Música: Stravinsky  
YAT-SEN CHANG y CRYSTAL COSTA  
English Nacional Ballet-eko lehen dantzaria eta dantzari solista

***EL CORSARIO***

Coreografía: Petipa  
Música: Drigo  
ROMEL FROMETA y EVA SUAREZ  
Kubako Balet Nazionaleko lehen dantzaria eta dantzari solista

***EL CISNE NEGRO***

Coreografía: Ray Barra  
Música: Tchaikovsky  
MARLON DINO y DARIA SUKHORUKOVA  
Municheko Operako dantzari solistak

ETENALDIA

***EL ESPECTRO DE LA ROSA***

Coreografía: Fokine  
Música: Carl Maria von Weber  
YAT-SEN CHANG y CRYSTAL COSTA  
English National Ballet-eko lehen dantzaria eta dantzari solista

***EL CISNE BLANCO***

Coreografía: Ray Barra  
Música: Tchaikovsky  
MARLON DINO y DARIA SUKHORUKOVA  
Municheko Operako dantzari solistak

***DIANA Y ACTEÓN***

Coreografía: Vaganova  
Música: Drigo  
ROMEL FROMETA y EVA SUAREZ  
Kubako Balet Nazionaleko lehen dantzaria eta dantzari solista

***LA ESMERALDA***

Coreografía: Ben Stevenson  
Música: Drigo  
IANA SALENKO y MARIAN WALTER  
Berlingo Operako lehen dantzariak

***GISELLE***

Coreografía: Nureyev  
Música: Adam  
JOSE CARLOS MARTINEZ y AGNES LETESTU  
Pariseko Garnier Operako izarrak

**Rómel Frómeta**

**Lehen Dantzaria Kubako Balet Nazionalean**

Habanan jaio zen. Bere ikasketak 1992an hasi zituen Alejo Carpentier izeneko balet eskola probintzian eta, 1998an, Balet Eskola Nazionalean. 1999an Urrezko Domina lortu zuen talentu gazteentzako Vignale-Danza lehiaketan (Italia), eta 2000n Brontzezko Domina lortu zuen nazioarteko balet lehiaketan (Bulgaria). 2001ean, graduazioaren ostean, Kubako Balet Nazionalean hasi zen, Alicia Alonsoren zuzendaritzapean.

**Marlon Dino**  
**Solista Municheko Operako Baletan**

Marlon Dino Albanian jaio zen eta Tiranako Koreografia eta Balet Eskolan hezi zen. 1998an Genève Dance Center-en hasi zen, David Allenen zuzendaritzapean. 2001ean dantzaria izan zen Vienako Operako Baletan. 2002an Municheko Operako Baletan hasi zen, eta han Jiří Kylián-en *Six Dances* soloa dantzatu zuen. Bestetik, bi koreografia sortu ditu State Ballet's Young Choreographers programarako. Solista izatera igaro zen 2005ean eta Lehen Solista 2007an.

**Marian Walter**  
**Lehen Dantzaria Berlingo Operan**

Alemanian jaio zen 1981ean eta dantza ikasi zuen Berlin State Ballet School-en. 2000n dantzari profesional graduatu zen. 2000. urtetik 2002ra arte Municheko Operako Baletan jardun zuen. 2002an Berlingo Operako Baletan hasi zen, Solista kategorian, eta 2003an Lehen Dantzari izatera igaro zen.

**Yat-sen Chang**  
**Lehen Dantzaria English Nacional Ballet-en**

Yat Sen Chang-ek dantza ikasi zuen Kubako Balet Nazionaleko Eskolan bederatzi urte zituela. 1989an dantzari eta irakasle graduatu zen eta konpainia hartan hasi zen, Alicia Alonsoren zuzendaritzapean. 1992an gonbidatua izan zen La Bauleko (Frantzia) International Dance Festival-en. Geroago Jeune Ballet de France-n hasi zen. 1993an English National Ballet-ek kontratatu zuen, Lehen Dantzaria izan zedin.

**Eva Suárez**  
**Solista Kubako Balet Nazionalean**

Bere balet ikasketak 1992an hasi zituen Bokaziozko Arte Eskolan, eta jarraipena eman zien Habanako Balet Eskola Nazionalean. 2000. urtean Kubako Balet Nazionalean hasi zen. 2002an Solista izatera igaro zen.

**Daria Sukhorukova**  
**Solista Municheko Operako Baletan**

San Petersburgen jaio zen. Bere balet ikasketak Vaganova akademia prestigiotsuan hasi zituen eta 2001ean Marinsky antzokiak kontratatu zuen. 2007an Solista hasi zen Municheko Operako Baletan.

**Iana Salenko**  
**Lehen Dantzaria Berlingo Operan**

Kieven jaio zen 1983an. 1995etik ikaslea izan zen Pisarev Ballet School-en eta 2000n dantzari profesional graduatu zen. 2000tik 2002ra Kieveko Operako Solista eta beranduago bertako Lehen Dantzaria izan zen. 2005ean Solista kategoriarekin hasi zen Berlingo Operako Baletan eta 2007an Lehen Dantzaria izatera igaro zen.

## **Crystal Costa Solista English National Ballet-en**

Vancouverren jaio zen (Kanada). Kanadako National Ballet School-en lortu zuen dantzari profesionaleko graduazioa. Crystal Solista hasi zen Hong Kong Ballet-en 2001ean eta Lehen Dantzari izatera igaro zen 2005ean. 2007. urtean English National Ballet-ek kontratatu zuen.

## **Lucia Lacarra Lehen Dantzaria Municheko Operako Baletan**

Bere gorputz lirain, argal eta trebatuak uste osoko dantzari profesionala dela adierazten du. Hogeita hamalau urterekin Lucia Lacarrak diziplina eta heldutasun handiz lortu du nazioarteko dantzako lekurik gorenera heltzea eta hainbat domina garrantzitsu eskuratzea, hala nola Nijinsky saria 2002an –dantza klasikoaren Oscar sariaren parekoa da– edota Moskuko Bolshoi antzokiak emandako Benois dantza saria, 2003an. Izan ere, bera da espainiar dantzaren historian Nijinski saria eskuratu duen bakarra.

Lucia Lacarrak txiki-txikitatik eduki zuen argi dantza bere bizimodua izango zela, kosta ahala kosta izanda ere. Hamar urterekin, eta kasketaldi batzuen ostean, herrian bertan, Zumaiian (Euskal Herria), hartu zituen bere lehen dantza eskolak. Hamahiru urterekin nabarmentzen hasi zen eta Donostiako Mentxu Medelen akademian jaso zituen eskolak. Hamalau urte zituela ikasi zuen dantzak sakrifizio asko eskatzen dituela, ez bakarrik fisikoak baizik eta emozionalak ere bai, familiarik aldentzea bezalakoak, bere heziketaren jarraipena Madrilen izan baitzen, prestigio handiko Victor Ullateren eskolan. Urtebete beranduago, 1990ean, bere lehen kontratua lortu zuen Victor Ullateren konpainian, Madrilgo Erkidegoko Baletan, Lehen Dantzari kategorian. Victor Ullateri buruz, berari zor dion eskerrona nabarmentzen du dantzariak, bere buruan behar zuen konfiantza eman ziolako. Harrez geroztik, Lucia Lacarraren karrerak gorantz jarraitu du.

1994an Marseillara joan zen Roland Petit-en Balet Nazionalan lan egitera eta han geratu zen hiru urtez. Lacarrak berak dioenez, Petit dantzaren jenio bat da eta hark laster bihurtu zuen bere izar, harentzat sortuz *Boléro*, *Le Guépard*, *Et la Lune descend sur le temple qui fut* eta *Mère Méditerranée* izeneko baletak, Petit-en errepertorioko beste obra batzuk interpretatzeaz gain. Roland Petitengandik batez ere ikasi zuen agertokian emozionalki presente egoten eta, bestalde, teknikoki klasikoa dena gainditzten duen eran dantzatzeko delatuztia. Gainera, izar gonbidatua da hainbat konpainiatan, hala nola Pariseko Operan –izar izendapena duen espainiar dantzari bakarra da–, Milango Scalan, Moskuko Bolshoin, Napoliko San Carlon, Txinako Opera Nazionalan, Tokioko Asami Maki Ballet-en eta Tokioko New National Theatre-n. Bere bizimodua dantzari nomada batena da eta irekita dago beste ikaspen eta dantza estiloetara. Horrek eraman zuen Estatu Batuetara 1997an, han integratu baitzen San Francisco Ballet-en, Lehen Dantzari kategoriarekin, neoklasiko eta garaikide handiak interpretatuz, adibidez, Forsythe, Robbins, Duato eta Balanchine. 2002an Munichera aldatu zen, eta orain han da izar-dantzaria Municheko Operako Baletan. Lucia Lacarra bere garai profesional eta pertsonal onenean dago. Dantzari lez daukan errekonozimendua publikotik eta kritikatik jasotzen du koreografo handien obrak interpretatzen dituen bakoitzean. Bestetik, izar gonbidatua izan da Stuttgart Ballet-en eta English National Ballet-en, eta baita ere mundu osoan egindako galetan. Lucia Lacarrak ondo daki egindako ahaleginak saria dakarrela ordainean, eta Espainiako Kultura Ministerioak Dantza Sari Nazionala eman zion 2005eko azaroan. 2007an Vienako Orkestra Filarmonikoak eta Vienako Operako Baletak Zubin Mehtak zuzendu zuen Urte Berriko kontzertuan izar dantzaria izan zedin gonbidatu zuten.



2009 - X. edizioa

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**Auditorioa – Guggenheim Bilbao museoa**

**Maiatzak 27 (asteazkena) - 20:00etan**

**DANS.KIAS – SASKIA HÖLBLING / Viena**

**“CAT FREEZE 2”**

*Cat freeze 2* izeneko *performance*-an Saskia Hölblingek (dantza), Heinz Ditsch (musika), Doron Goldfarb (bideoa) eta Krisharekin batera (argiztapena), esparru bitarteko eta konbergenteetan zehar doan espedizio bat planteatzen dio bere buruari.

Hotzean zehar egindako bidaia da, paisaia birtualetarantz doana, eta haietan gorputza disolbatu egiten da. Aldi berean, jazoeren bilakaera horretan iraupenak eta eraldaketak ere zuzentzen dute pieza.

Kontzeptua, koreografia, intepretazioa: **Saskia Hölbling**

Musika: **Heinz Ditsch**

Bideoa: **Doron Goldfarb**

Argiztapena: **Krish**

Soinua: **Moritz Cizek**

Arte-aholkularitza: **Peter Kollreider**

*Cat freeze 2* DANS.KIAS-en ekoizpen bat da.

DANS.KIAS-ek Cultural Department of the City of Vienna-ren babesu dauka.

**SASKIA HÖLBLING / DANS.KIAS**

Saskia Hölbling Vianan jaio zen 1971n. Bere lehendabiziko koreografiak Vienako kontserbatorioan ikasten zuela aurkeztu zituen. Bere ikasketei jarraipena eman zien Bruselan, Anne Teresa De Keersmaecker-ek zuzendutako P.A.R.T.S Dance Academy-n.

*Sendeschluss*, 1995ean sortua, DANS.KIAS kolektiboa fundatzeko abiapuntua izan zen, eta ondoko lanak sortu zituen harentzat: *Duras-Trilogie* (1995 -1997), *Do your desires still burn* (1998), *Distance.Two.Near* (1999), *Chat Gap* (1999), *in.tent//frame I* (2000), *in.tent//frame II* (2001), *Other feature* (2002), *Exposition corps* (2003), *Superposition corps* (2004), *Your body is the shoreline* (2005), *Jours Blancs* (2006), *F on a pale ground* (2007), *Cat in a deep freeze* (2007), *Secret sight* (2008) eta *Cat freeze 2* (2008).

Bere piezak sortzeaz gain, Saskia Hölblingek Bob Wilsonekin (AEB), W. Dorner konpainiarekin (Austria), Laurent Pichaud-ekin (Frantzia) eta Benoît Lachambrek (Kanada) lan egin du.

1999an *Out of between*-en koreografia egin zuen Vienna Staatsopernballett-entzat eta 2001ean *Emerge behind your eyes*-ena, TanzTheater Wien-entzat.

2000n Prix d'auteur du Conseil Général de Seine-Saint-Denis / Bagnolet izeneko saria jaso zuen *Do your desires still burn* piezarengatik. 2002an, Austrian, Dance Production Prize izeneko saria jaso zuen *Other feature* piezarengatik.

2001ean, Benoît Lachambre kanadar koreografoarekin eta Laurent Goldring frantziar bideo-artistarekin kolaboratuz, berak sortutako *rrr... (reading, readings, reading)* bakarkako pieza Tanzquartier Wien-en irekitze ekitaldirako ekoiztu eta aurkeztu zen. 2002an Austria eta Japoniaren arteko hartu-eman kulturalerako proiektu batean *-AJ project-* parte hartu zuen. Urte berean, Wien Modern jaialdiaren markoan, *II Combattimento di Tancredi e Clorinda* (Monteverdi) eta *A-ronne* (Luciano Berio) operen eszenaratzean kolaboratu zuen. Lan hura Vienna Taschenoper-ekin egindako kooperazio-proiektu bat izan zen.

2004an bigarren kolaborazio bat eduki zuen *-Labyrinth-* Vienna Taschenoper-ekin, eta hartan elkarlanean jardun zuen Wolfgang Mitterer-ekin (konposizioa) eta Alexej Paryla-rekin (bideoa). 2005ean, Arno Böhler austriar filosofoak eta Susanne Granzer aktoreak filosofia eta eszena elkartzeko zabaldu zuten proiektu batean parte hartu zuen, *Vom Sinn des Sinns* irakurketa/*performance*-a aurkeztuz.

2006an konpainiaren lan artistikoaren gaineko *DANS.KIAS.DOC* dokumentala argitaratu zen, DVD formatuan. Urte berean Saskia Hölbling biran ibili zen Benoît Lachambrek *Lugares comunes* piezarekin.

2007an DANS.KIAS STUDIOk bere ateak ireki zituen, artista gazteei egonaldi artistikoak eskaintzeko.

2008an Saskia Hölblingek *Fiction in between* duoa sortu zuen Fabrice Ramalingom frantziar koreografo eta dantzariarekin batera.

Bere azken lanean Luciano Berioaren hiru pieza eszenaratu ditu *-Naturale, Visage, Sequenza V-* Vienna Konzerthaus / Neuer Saal-en, 2009ko otsailaren 12, 14 eta 15ean, Vienna Taschenoper-ekin kolaboratuz.



2009 - X. edizioa

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBO  
KONGRESU ETA MUSIKA JAUREGIA  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

**A3 aretoa – Euskalduna jauregia**  
**Maiatzak 31 (igandea) - 20:00etan**

... **FRANKFURTetik:**

**JONE SAN MARTIN – AMANCIO GONZALEZ – INMA RUBIO / Frankfurt**

**“DERIVADO”**

**“SIN-KING IN ME”**

**“VISION DIVIDED”**

**“THE VILE PARODY OF ADDRESS”**

Egitarau honetan beren jatorrizko hiriak utzi zituzten hiru interprete aurkezten ditugu (Jone eta Amancio Euskal Herrikoak dira eta Inma, valentziarra) beren karrerak atzerrian garatzeko eta azkenean Frankfurten elkarrekin lan egiten amaitzeko, The Forsythe Company-n, William Forsythe-ren zuzendaritzapean. Bere izena daraman konpainiaren koreografo eta zuzendari ezagunak atseginez utzi die *The Vile Parody of Address* koreografia, 1988ko azaroaren 26an Frankfurt Ballett-ek estreinatua izan zena, hirurek Dantzaldian aurkeztuko dituzten sormen-lanen egitaraua osatu dezaten.

Beraiekin hitz egiteko aukera ere izango dugu, beren ibilbideak eta karrera profesionala atzerrian egitearen esperientzia bezalako gaiez aritzeko.

**“DERIVADO”**

Koreografia eta interpretazioa: **Jone San Martín**

Soinua: **Niels Lang**

15 min / **estreinaldia**

*Derivado* Jone San Martinen aurreko pieza baten distilazio prozesu baten ondorioa da. Pieza hura *Hostis* deitzen zen, eta Agnes Chekroun-ekin batera sortu zuen 2007ko abenduan (Bockenheimer Depot, Frankfurt),

*Derivado*-k proposatzen duen aldaketa aurreko lanaren barrutik bertatik sortzen da, eta jatorrizko norabidetik desbideratzen du. Lan honetan San Martinek berak sortutako zirkunstantzien esku lagatzen du bere burua eta zirkunstantzia horiek esparru sortu horren zehar egindako bidaia finkatzen dute: dualtasuna.

Izan zitekeenaren eta denaren artekoa, borondateren esku ez dagoena edo ondorioz sortutako *deribatua*.

### **"SIN-KING IN ME"**

Koreografia eta interpretazioa: **Amancio González**  
Musika: **Gavin Bryars - The sinking of the Titanic**  
15 min / **estreinaldia**

Behar dut  
Badaukat  
Nahi dut  
Nahiago dut

### **"VISION DIVIDED"**

Koreografia eta interpretazioa: **Inma Rubio**  
13 min / **estreinaldia**

Gure errealitateaz pentsatzen duen burmuinaren gaineko gogoeta da. Lengoaiak lotailu moduan jarduten du. Mugimenduak *mantra* eran sortzen duten lengoia da. Paralisitik aldaketarako askatasunerantz.

### **"THE VILE PARODY OF ADRESS"**

Koreografia: **William Forsythe**  
Interpreteak: **Amancio González eta Jone San Martín**  
Musika: **J. S. Bach, Wohltemperiertes Klavier / Fuge nr. 22 B-Moll, Buch 1. Glenn Gould-ek interpretatua**  
15 min

*The Vile Parody of Adress* inprobisaziorako gaitasunean oinarritutako pieza da funtsean. Interprete bakoitzaren rola nortasun argi eta definitua dauka, baina nortasun hori dantzari bakoitzaren nortasunak kutsatuta dago, kontraste eginez eta, aldi berean, nolabaiteko nahasketa sortuz bere bikoteak eszenatokian duen rolaekin.

Despite what I keep saying  
it doesn't have to be this way  
the doctor and I are fully aware  
of the precious condition of  
your other head.

*The Vile Parody of Adress* 1988ko azaroaren 26an estreinatu zuen Frankfurt Ballett-ek.



## **AMANCIO GONZALEZ MINON**

Bilbon jaioa

### **Heziketa**

Ion Beitia dantza-estudioa, Areeta, (Espainia)

Centre international de danse Rosella Hightower, Cannes, (Frantzia)

### **Konpainiak**

Scottish Ballet, Glasgow (Eskozia)

NAPAC Dance Co., Durban (Hegoafrika)

De Rotterdamse Dansgroep, Rotterdam (Holanda)

Reflex Dansgesellschaft, Groningen (Holanda)

Scapino Ballet Rotterdam, Rotterdam (Holanda)

Frankfurt Ballett, Frankfurt (Alemania)

The Forsythe Co., Frankfurt (Alemania)

### **Sorkuntza koreografikoak**

*SIAMES*, Durban (Hegoafrika)

*5 SONNTAGS AM BAHNHOF*, Frankfurt (Alemania)

*UN HAPPEN NESS*, Turin (Italia)

## **JONE SAN MARTIN**

Donostia -1966

### **Heziketa**

Mentxu Medel (Donostia)

Institut del Teatre (Bartzelona)

Mudra Internacional, Maurice Bejart (Brusela)

### **Konpainiak**

Ballet de Barcelona, 1986-87

Ballet Nacional de España, 1987

Ulmer Teather, Philippe Talard (Alemania) 1988-89

Archipel Sud (Belgika) 1989-90

Jose Besprosvany konpainia (Belgika) 1990-91

Jacopo Godani konpainia (Belgika) 1990-91

Ballet de Charleroi (Belgika) 1990-91

Ballett Frankfurt, William Forsythe (Alemania) 1992 - 2004

The Forsythe Company, 2005etik aurrera

## **W. Forsythe-rekin izandako kolaborazioak eta sorkuntzak Frankfurt Ballet-en eta The Forsythe Company-n**

*As a garden in this setting 1, Quinttet, Ali(e)n action, The The, Sleepers Guts, Small Void, Opus 31, Hypothetical stream 1, Eidos: Telos, Endless House Workwithinwork, Kammer Kammer Double –Single 7 to 10 Passages, We Live Here, The room as it was, Decreation, Thre Atmospheric Studies, Clouds After Cranach, Heterotopia, Human Writes, Angolo Oscuro, Yes We Can't, I don't believe in Outer Space.*

### **Koreografiak**

*Juana la otra*, Bockenheimer Depot, Frankfurt (2000)

*Ser estar y parecer*, Bockenheimer Depot, Frankfurt (2001)

*Remote Versions*, Agnes Chekroun eta Fabrice Mazliah-rekin izandako kolaborazioa, Bockenheimer Depot, Frankfurt (2003)

*Double B(l)ind*, Agnes Chekroun eta Fabrice Mazliah-rekin izandako kolaborazioa, Bockenheimer Depot, Frankfurt (2004)

*Hostis*, Agnes Chekroun-ekin izandako kolaborazioa, Bockenheimer Depot, Frankfurt (2007)

### **Dantzari gonbidatua**

Dantzari legez, Francis Bacon erakusketa inauguratzera gonbidatua izan zen W. Forsythe, Dana Caspersen eta Kristine Burkle-rekin batera Haus der Kunst museoan, Munichen, 1996an. Cartier fundazioan, Issey Miyake-ren erakusketarako, Kristina Burkle-rekin batera, Paris, 1999. Gonbidatua izan zen Avignongo jaialdian, Carlotta Sagnaren *Tourlourou* koreografiarekin, 2004an.

### **Filmak eta bideoak**

*The Mind of Doctor Forsythe*, instalazioa, Film Fabric, Belgika.

*The way of the Seed*, filma, Film Fabric, Belgika.

*Jonemanak*, Nerea Pagolaren filma, Donostia.

*Meat me*, Lutz Gregor-en *Arte* laburmetraiarako. Agnes Chekroun eta Fabrice Mazliah-rekin izandako kolaborazioa.

Jone San Martinek Gipuzkoako Profesionalen Elkarteak emandako Dantza Saria eskuratu zuen sariaren IV. edizioan.

### **INMA RUBIO TOMAS**

#### **Heziketa**

Humanities and Psychology, The Open University eta UOC-en

Real Conservatorio de Música eta Danza, Valencia (Espainia). Diplomatu.

Royal Conservatorium of Music and Dance, Den Haag (Holanda)

#### **Sariak**

Besteak beste:

Distinction Prize Original Choreography *Pending contact/while awaiting*, The Onassis

Foundation-ek emana, Grezia (2006).

#### **Konpainiak**

Espainiako zenbait konpainia

Scapino Ballet Rotterdam (1991-2001)

Performer, assistant and close collaborator Anthony Rizzi-rekin (1996- )

Guest at The Forsythe Company (2008)

#### **Sorkuntza koreografikoak**

Rotterdameko Scapino Ballet-aren errepertorioko zenbait lan, 1993-2000, Holanda

International Dance Day, Praha State Opera Festival, City of Culture 2000, Txekiar errepublika

Día Internacional de la Danza, Madril, Espainia

Best Production of the Year 2000, Schouwburg Theater, Rotterdam, Holanda

Arteen biurtekoa, Valencia, C.C.C.V., Espainia

Danza Valencia jaialdia, Espainia

Madrid en Danza jaialdia, Espainia

Korzo Theater Voorjaarsontwaken Festival, Holanda

Lantaren Venster/Dansateliers open Podium Festival, Holanda

Balletto Dell'Esperia, Italia

Brescia jaialdia, Italia

Miami Festival, AEB

The Choreographic Institut of New York/American Ballet School, AEB

Centro Coreográfico Comunidad Valenciana TGV, Espainia

MDR Leipzig Festival, Alemania

Johannesburg Jomba Dance Festival and University Cape Town School of Dance, Hegoafrika

Rochester City Ballet, AEB

The Ballet of Flanders, Belgika

Torinodanza jaialdia, Italia

### Bestelakoak

Interpretea Ruychi Sakamotoen *Opera Life*-n. Koreografia: Tony Rizzi, Japonia.

Dantzaria Willen van de Sande Bakhuyzen-en *Lost* filmean, Holanda.

Arte-aholkularia eta interpretea Tonny Rizzi ekoizpen ugarian, honako leku hauetan: Kunstlerhuize Mousonturm Frankfurt, Impulstanz Wien, Black Box Theater Oslo, Dance2004 Festival Tanzlabot Munich Ballet, Zagreb Festival, Boston VisualDanceArt Festival.

Frida Kahloren ahotsa Quade/Paiva-ren *Dead Orange Walk*-en Korzo and Spui Theaters-en, Den Haag.

Interpretea Milan fashion week-en, C'N'C' Costume International by Stephen Galloway.

